

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua. Federazio Estatutueta xedatuaren garapenerako, FVT/ETF-ko txapelketa ofizialen inguruan, araudi honetan aurreikusia jarraituko da.
2. Artikulua. FVT/ETF-ko eta DA-ko Batzorde Nagusiari dagokio araudi hau ontzat ematea, FVT/ETF-ko estatutueta 15. Artikuluan xedatuaren arabera.

II. TITULUA. KIROLARIENA.

3. Artikulua. KIROLARIAK. FVT/ETF-an inskribatu ahal dira kirolari bezala, eta dagozkien Lurralde Federazioen bidez, Espainiako nazionalitatea duten pertsona fisikoak, hala nola xede horretarako baldintzak betetzen dituzten atzerritarrak.
4. Artikulua. KATEGORIAK. Adina, sexua eta lortutako gaitasun teknikoa kontuan hartuta, FVT/ETF erakundean inskribatutako kirolariak kategorietan banatzen dira, hau da, dagokion unean FVT/ETF erakundean, Espainiako Errege Federazioan, Munduko Federazioan (WTF) xedatzen diren kategorietan hala nola dagokion unean Batzorde Olinpikoan xedatzen diren haietan.

Ezarri gabeko kategoriekin osatutako txapelketa haietan, FVT/ETF-ko Zuzendaritza Teknikoa izango da dagokion maila adostuko duena.

5. Artikulua. ESPEZIALITATEAK. Taekwondo eta Para-Taekwondo espezialitateen barruan, ondorengo probetan lehiatu ahal izango da:

KYORUGUI (banakakoa eta taldekoa)

POOMSAE (banakakoa eta taldekoa)

FRRE-STYLE (banakakoa eta taldekoa)

PARA-TAEKWONDO (banakakoa)

FVT/ETF-ren arabera ontzat emandako Diziplina Elkartuak ondorengoak dira:

TAEKWONDO

HAPKIDO

Bere txapelketak dagokion Araudiak erregulatuko ditu.



6. Artikulua. KIROLARIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1) ESKUBIDEAK: Kirolarien eskubideak, FVT/ETF-ko Estatutuetan xedatuz haratago, ondorengoak izango dira:

- a) Euskadi ordezkatzeari, horretarako hautatuak izatean.
- b) Lizentzia izenpetzeko askatasuna, ezarritako arauak errespetatuz.
- d) FVT/ETF-ren aldetik tratatu duina eta errespetuzkoa jasotzea.

2) BETEBEHARRAK: Kirolarien eskubideak izango dira, FVT/ETF-ko Estatutuetan eta Araudietan xedatuak hala nola dagokien Lurralde Federazioko Estatutuetan eta Araudietan xedatuak. Oro har, ondorengo adierazpenak zaintzea beharrezkoa izanik:

- a) Edozein mailako Organoekin eta federazio zuzendariekin, Klubekin eta horietako zuzendariekin, arbitroekin eta epaileekin, gainerako kirolariekin eta etorritako ikusleriarekin portaera adeitsua erakustea, une orotan Taekwondo-ren izpiritua hala nola izpiritu Olinpikoa azaltzen ahaleginduz.
- b) Eskumeneko federazio organoetako erabakiak edo xedapenak onartzea.
- c) Behin-behineko erreklamazioak edo errekurtsioak aurkeztea, bere Klubaren eta azkeneko Autonomia lizentziaren izapideari dagokion Lurralde Federazioaren bidez.
- d) Arbitroen erabakiak onartzea partaide izandako kirol emanaldietan, dagozkion erreklamazioak eginez, beharrezko errespetuarekin eta ezarritako arauzko bideak jarraituz.
- e) Eskumeneko Federazio Organoen deialdiaren arabera dagozkien txapelketetara eta entrenamenduetara etortzea, behar adinako denborarekin aurreikusi behar izanik behin-behineko ez etortzeak, justifikazioaren bidez.
- f) Autonomia Taldean parte hartzeko hautatuak: Parte hartzea, justifikatutako arrazoiagatik izan ezik, inskribatzean hautatu dituen kirol agerraldietan. Ezin izango dira erretiratu txapelketatik justifikatutako arrazoirik gabe; egingo balute, balizko erreklamazioak egiteko euren eskubidea galduko lukete, txapelketako sailkapenetik kanpo geratuz eta Diziiplina batzordean horren berri eman behar izanik, zeinek aurretiko diziiplina espedientearen bidez erabakiko dituen zigor aplikagarriak.
- g) Kirolean debekatutako metodo edo substantzia debekatuak ez erabiltzea, Txapelketaren aurretik, bitartean eta ondoren, indarrean dauden lege xedapen Autonomikoak, Nazionalak eta Internazionalak kontuan hartuta.
- h) Txapelketan aurreikusi diren dokumentuak aurkeztea, esaterako lizentziak, kirol karneta, N.A.N., osasun ziurtagiria, etab.
- i) Ez parte hartzea, ofizialtasun mailakoak izanik, FVT/ETF, RFET eta DA hala nola ETU edo WTF-ren aldetik, hurrenez hurren, ofizialtzat kalifikatuak eta onartuak izaten ez diren Lurralde, Autonomia Mailako eta Maila Nazionaleko edo Internazionalako txapelketetan. Diziiplina Batzordean jakinarazi



beharrekoari utzi gabe, zeinek aurretiko diziplina espedientearen bidez zigor aplikagarriak erabakiko dituen.

III. TITULUA: KIROL JARDUERAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

7. Artikulua. KIROL JARDUERAK. Euskadin garatzen diren kirol jarduera guztiak, zeinetan partaide izango diren FVT/ETF erakundean harpidetutako Lurralde Federazioak, Klubak eta kirolariak, uneko urteko Batzorde Nagusiak ontzat emandako Egutegi Ofizialean azaldu beharko dira edo bestela Zuzendaritza Batzordeak horien partaidetza ontzat eman beharko du.

Bere izendapena, antolaketa edo publizitatea direla medio ofizialtasun itxura duten jardueretan parte hartzea, betiere horiek FVT/ETF, RFET eta DA, eta/edo WTF-ren aldetik izendatuak izan ez direnean, akats oso larritzat hartuko da, dagokion diziplina espedienteari hala nola Taekwondo jardueraren legezko interesak defendatzeko dagozkion lege ekintzak garatzeari bidea emanez.

8. Artikulua. TXAPELKETA OFIZIALAK. Txapelketa ofizialak dira batzordean onartutako egutegi ofizialean azaltzen direnak.

9. Artikulua. JARDUERA OFIZIALAK. FVT/ETF-ko jarduera ofizialak dira ondorengoak:

a) Euskadiko Txapelketak zein Batzorde Nagusiaren bidez FVT/ETF-ko egutegi ofizialean barne hartu beharko diren.

Txapelketa hauetako partaidetza arauak Autonomia Zuzendaritza Teknikoaren eskutik elaboratu eta barreiatuko dira, bere ospakizunarekiko beharrezko aurrerapenarekin, Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuan xedatua kontuan hartuta.

b) FVT/ETF-ren eskutik antolatutako autonomia eta autonomia arteko izaerako lagunarteko torneoak, Batzorde Nagusian ontzat eman ondoren egutegian barne hartu beharko dira.

c) Autonomia Arbitraje ikastaroak.

d) Gerriko Beltzen azterketak.

e) Irakaskuntza Titulaziorako Ikastaroak.



10. Artikulua. Euskadin ospatzen diren jardueretarako ondorengo definizioak ezartzen dira:

a) Autonomia eremuko jarduera. Horrela esaten zaio Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde mugak gainditzen ez dituen eta bertan FVT/ETF-tik emandako indarrean dagoen lizentziaren jabe diren eta jardueraren arauan xedatua betetzen duten kirolarien partaidetza onartzen duen geografia eremu batean garatzen den jarduerari.

11. Artikulua. URTEKO KIROL EGUTEGIAREN EZARPENA. Jarduera ofizial bat Autonomia eremukoa izateko, FVT/ETF-ri dagokio jarduera ofizialtzat hartzea eta Zuzendaritza Teknikoak elaboratutako eta Batzorde Nagusiak onartutako urteko Kirol Egutegian barne hartzea. Baina urtean zehar, Kirol interesa dela medio, jardueraren bat egutegian barne hartzea nahiko balitz, nahikoa izango litzateke Zuzendaritza Teknikoak hori Zuzendaritza Batzordeari aurkeztea, bertan ontzat ematea ezinbestekoa izanik.

II. KAPITULUA. AUTONOMIA ESPARRUKO JARDUERA OFIZIAL BATEAN INSKRIPZIO BATEN ESKAERA EGITEKO IZAPIDEAK

12. Artikulua. ESKAERA BIDERATZEKO ESKUBIDEA ETA BETEBEARRA. Autonomia esparruko jarduera ofizialetan parte hartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituen federatu orok eskubidea izango du, bere ohiko egoitzari dagokion tokiko Lurralde Federazioan bere inskripzioa bideratzeko, hala badagokio.

13. Artikulua. PARTAIDE BATEN INSKRIPZIO ESKAERA. FVT/ETF-ko Jarduera ofizial bateko partaide baten inskripzio eskaera, bere lizentziaren izapideari dagokion Lurralde Federazioaren bidez egingo da. Eskaera horretan, dokumentazioa aztertu beharko duten erakunde bakoitzeko Presidentearen O.E. adierazpena azaldu beharko da. O.E. adierazpenak esan nahi du aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela eta eskatutako baldintzak bete egin direla. Dokumentazio hori onartzea edo errefusatzea, hala nola eskatutako jarduera ofizialean barne hartzea, kasu bakoitzean FVT/ETF-ko arduradunari dagokio.

Edonolako dokumentazio motaren izapideak markatutako epe batzuen barruan egingo dira.

Baimendutako federatuaren inskripzio izapideak dagokion Federazioko Idazkari Nagusiaren egiaztapenarekin eta araudi honetan xedatutako baldintzen konplimenduarekin kontaktu beharko du. Egiaztapen hori azaltzen ez bada, FVT/ETF-ri dagokio autonomia eremuko jarduera ofizialean



inskripzioaren izapidea ez egiteko eskubidea, aipatutako baldintza betetzen ez den bitartean, ezarritako epean.

Titularra diziplina espedientearen bidez kautelazko zigorra edo etenaldia betetzen arituko balitz, federatua ezin izango litzateke inskribatu.

Federatua dopinaren arau- hauste batengatik zigortua izango balitz, dopinaren zigorra betetzen denean, kirolariak dopin kontrola gainditu beharko du, autonomia eremuko jarduera batean inskripzioa egin aurretik.

III. KAPITULUA. IZAERA OFIZIALEKO NAZIOKO ETA NAZIOARTEKO TXAPELKETETAN AUTONOMIA ORDEZKATUKO DUTEN TALDEEN OSAKETA.

14. Artikulua. Behin lurraldeko txapelketak burutu eta gero (beti estatuko federazioko RFET egutegiaren arabera ahal bada) txapelketa Autonomikoa eta Batzorde Teknikoak beharrezkoak uzte dituen aurre-aukeraketak burutuko dira Nazioko eta Nazioarteko txapelketetan Euskadiren ordezkari izango diren taldeak osatzeko.

IV. KAPITULUA. TXAPELKETA OFIZIALEN ANTOLAKETA.

14. Artikulua. 15

15. Artikulua. JARDUERA OFIZIAL BAT ONARTZEKO ETA KALIFIKATZEKO BALDINTZAK. Jarduera ofizial bat ontzat ematea lortzeko Antolatzaileek Zuzendari Teknikoari aurkeztu beharko diote, ospakizuna baino hogeita hamar egun lehenago, Jardueraren Araudi bikoiztua. Kopia bat Antolatzaileentzat izango da, dagokion onarpena kontuan hartuta. Beste kopia berriz, Jarduera onartu duen Zuzendari Teknikoak kontserbatuko du.

Araudian beharrezko adierazpen guztiak hartu beharko dira barne eta bereziki:

- a) Txapelketaren eta aurretiazko operazioen (zozketa, pisaketa, kontrola) data, tokoa eta garapen ordua.
- b) Txapelketaren kategoria.
- c) Kirolarien maila edo mailak, txapelketa irekia izaten denean.
- d) Txapelketaren garapen formula (kanporaketa, bigarren aukera, ligak, etab.)
- e) Inskripzioen amaiera data eta bidaltzea dagokien tokoa, inskripzio kuotaren adierazpenarekin.
- f) Ematen diren Sariak, Trofeoak eta tituluak.

16. Artikulua. ANTOLATZAILE PUBLIKOAK. Organismo Ofizialek antolatzen dituzten txapelketetan, kasu bakoitzari Erakundearen eta Txapelketaren ezaugarri propioetatik eratorritako tratamendua aplikatuko zaio, eta edozein



kasutan dagokion Lurralde Federaziotan aurkeztuko dira, jarraian FVK/EKF-ra lekualdatzeko, arestian ezarritako epeen barruan.

17. Artikulua. TXAPELKETAREN ESKUBIDEAK. Irudia, publizitatea, marketina, Telebista, irratia, zinematografia, argazkia, banda magnetikoa, eta bestelako erreproduzio baliabideen erabilera eskubide guztiak, Autonomia eremuko Jarduera ofizialekin zerikusia dutenak, FVT/ETF-ren jabego eskusibotzat hartuko dira.

18. Artikulua. AUTONOMIA TXAPELKETEN ANTOLAKETA. Edozein espezialitateko eta kategoriako Autonomia Txapelketen antolaketa Lurralde Federazio bati esleitu ahal izango zaio, koordinaketa haren eta FVT/ETF-ren artekoa izanik. Esleipen honetarako baloratuko dira esleipen horri dagozkion abantaila ekonomikoak hala nola kirol arlokoak.

19. Artikulua. ANTOLAKETAREN ARDURA. Txapelketetako Erakunde antolatzaileak izango dira horietaz arduratzen direnak eta horien betebeharra izango da FVT/ETF-ren arabera xedatutako Arau eztabaidaezinak zaintzea.

20. Artikulua. INSKRIPZIOAK. Autonomia eremuko txapelketetarako, Lurralde Federazioa arduratuko da inskripzioak FVT/ETF-ra helarazteaz, betiere txapelketa Arauetan ezarritako epearen barruan, bere Idazkari Nagusiaren ziurtapenarekin, bertan azaltzen diren datuen egiazkotasuna bermatzeko asmoz.

Txapelketa Arau modura ezartzen dira, horren inguruan FVT/ETF-ren eskutik Txapelketa bakoitzerako igorriko diren zirkularretan barne hartzen direnak.

Zuzendaritza Teknikoari dagokio arauak elaboratzea, Txapelketa bakoitzeko zirkunstantziak kontuan hartuta.

Taldeen kasuan, inskripzioak halaber Araudiaren arabera egin beharko dira. Osagaiak aldatu ahal izango dira soilik Zozketa ospatu aurretik. Hau ospatzean, debekatuta dago inolako aldaketarik egitea.

Derrigorrezkoa da inskripzioan kirolarien ordezkari arduradunaren izena adieraztea eta txapelketan zehar Lurralde Federazioaren ordezkari betetzea, zein ontzat eman beharko duten, hala badagokio, bertako antolatzaileek.

Inskripzioa egitean ordaindu beharko da, arauetan hala aurreikusi bada, markatutako inskripzio tasa.

Txapelketetako inskripzioa Lurralde Federaziotan egin beharko da; ez da ontzat emango kirolariek zuzenean eginiko inolako inskripziorik.



Lurralde Federazioa arduratuko da, bai kirolarien diziplinaz eta bai horiek babesteaz eta kirolarien eskubideak edo interesak defendatzeko jarduera ordezkari ofizialaren bidez soilik garatu ahal izango da.

Izena emateko epea bukatu eta gero, zerrendak Euskadiko Taekwondo Federakundearen web orrian argitaratuko dira.

21. Artikulua. ZOZKETA. Txapelketarako zozketa Arauetan xedatzen diren tokian eta orduan ospatuko da. Bertan soilik antolatzaileen eta Lurralde Federazio bakoitzaren izenean datorren Ordezkararen presentzia onartzen da.

22. Artikulua. PISAKETA. Txapelketa arauetan zehaztuko dira pisaketa operazioak egiteko tokia eta ordua; horietan soilik antolatzaileen, Ordezkararen eta kirolariaren presentzia onartuko da.

Kirolariek gutxi gorabehera berrehun gramoren tolerantziarako eskubidea izango dute, kategoriaren mugak kontuan hartuta.

23. Artikulua. Lehiakideak dagozkien kategorian eta pisuan izango dira partaide, halaber Open kategorian edo askean parte hartzeko aukera izanik. Partaide ugari txapelketetan, pisaketa operazioak euren inskripzioarekin lotutako kategoriaren muga kontuan hartuta egin ahal izango dira. Inskribatutako kategoriari dagokion pisua ez izatean, automatikoki deskalifikatuak izango dira.

24. Artikulua. PISAKETARAKO DOKUMENTAZIOA. Pisaketaren jardueran, lehiakideak indarrean dauden bere N.A.N. eta federazio lizentzia erakutsi beharko ditu. Pisaketa amaitzean, ez da onartuko balizko omisioen inguruko inolako erreklamaziorik, eta ordezkariari dagokio egiaztatzea pisatuak izan diren bere kirolari guztiak zozketaren barne hartu direla.

25. Artikulua. BABES OFIZIALAK ETA MATERIAL HOMOLOGATUA. FVT/ETF-ko autonomia eremuko jarduera eta txapelketa ofizialetan, FVT/ETF-ren eta/edo RFET-ren eta DA-ren arabera homologatutako babes ofizialak eta materiala erabili beharko dira. Inolako kasutan ezinezkoa izango da WORLD TAEKWONDO FEDERATION (WTF) eta/edo EUROPEAN TAEKWONDO UNION (ETU) erakundeen arabera homologatutako babes ofizialen eta materialaren erabilera errefusatzea, bertako Araudietan xedatuari jarraiki, zeinen eraginpean jardun beharko diren RFET eta DA hala nola Federazioak barne hartzen dituen Autonomia Federazioak.



26. Artikulua. Txapelketako Zuzendaritza Teknikoari dagokio txapelketaren ohiko garapenerako beharrezko guztiarekin kontaktzea, esaterako: Erdiguneko Mahaiko antolakuntza langileak; Arbitrajea (arbitroak, kronoak eta ohar-hartzaileak); Medikuek, etab.

27. Artikulua. ERAKUNDEEN ERREKLAMAZIOA. Txapelketetan Antolatzaileek hartutako erabakien eraginez kaltetuak gerta litezkeen Erakundeek, federazioarekin lotura duten aurkarien edo ikusleen portaeragatik, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dute euren izenean datorren Ordezkararen bidez.

Erreklamazioak soilik Joko Arauen aplikazioko akatsen, diziplina auzien edota federazioarekin lotura duen kirolari baten, Erakunde baten edo ikusleen jardueraren inguruan egingo dira. Debekatuta daude balorazio arbitralaren balizko akatsen ondorioz egindako erreklamazioak.

Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte Lurralde Federaziotako ordezkeri ofizialek, Kluben txapelketetan izan ezik zeinetan Klubeko ordezkeriek aurkeztu ahal izango duten.

Eremu teknikoari dagozkion erreklamazioen inguruan eztabaidatzea eta erabakitzea dagokio Txapelketa Batzordeari.

Diziplina auzien inguruko ardura dagokio eskumeneko Diziplina Batzordeari; honek bilduko ditu Txapelketa Batzordeko txostenak eta ordezkeriak egindako oharra.

28. Artikulua. IRREGULARTASUNAK PARTAIDEEN DOKUMENTAZIOAN. Eskatutako dokumentazioaren irregulartasunen edo faltsifikazioen inguruko erreklamazioak egiaztatzea dagokio Txapelketa Zuzendariari; honek dagokion kirolaria edo Kluba erretiratzeko eskumena izango du, balizko diziplina zigorrak alde batera utzita.

29. Artikulua. DIZIPLINA BATZORDEA. FVT/ETF-ren ustean zigorra merezi duen akatsa egin denean, informazio guztia Diziplina Batzordeari bidaliko zaio.

30. Artikulua. TXAPELKETAKO ZUZENDARIAK. Txapelketetako Zuzendariak izango dira Zuzendari Teknikoak edota horiek eskuordetuko dituzten pertsonak.



31. Artikukua. ARBITRAJE. FVT/ETF-ko Arbitraje Batzordeak aukeratuko du izaera Autonomiko eta Nazionaleko txapelketa ofizial bakoitzerako arbitraje taldea, honako baldintzak betetzen dituzten arbitrajeko ofizialen artean:

a) Honako titulazio baten jabetzan egotea.

KYROUGUI

Epaile Kronometratzailea
Arbitro Erregionala
Arbitro Nazionala
Arbitro Nazioartekoa

POOMSAE

Epaile Kalifikatzaile Kronometratzailea
Epaile Kalifikatzaile Erregionala
Epaile Kalifikatzaile Nazionala
Epaile Kalifikatzaile Nazioartekoa

b) Federazioko lizentzia indarrean.

c) Ordainduta izatea dagokion urte horretako Arbitrai Kolegiatura.

d) FVT/ETF-ak urtero burutzen dituen birziklapen ikastaroren baten parte hartu izana.

Lurraldeetako Federazioek eman beharko diete FVT/ETF-ari, denboraldi bakoitzean, baldintza hauek betetzen dituzten arbitroen lista txapelketa hauetan izendatu ahal izateko.

32. Artikulua. Araudi honetan jasota ez dagoen edonolako arau edo egoerari dagokionez, aintzat hartuko da FVT/ETF-ko estatutuetan hala nola RFET-ko eta DA-ko txapelketa araudian xedatua eta ontzat emandakoa.

AZKEN XEDAPENA: Oraingo arautegia indarrean sartuko da ohiz kanpoko batzarrean onartu egiten bada eta euskojaularitzako administrazio urgazlea onartzen duenean.

JOSE ANTONIO VALIN
E.F.TAEKWONDO
LEHENDAKARI



ALBERTO IBAÑEZ
E.F.TAEKWONDO
IDAZKARIA

